

**II.- MENDEKO PLAZARAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK****15.- Deitutako plaza.**

Mendeko lanpostuaren plaza 1 deitzen da, txanda irekian, 3732/1 kodea eta dotazioa duena, eta derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ez duena. Halaber, ezaugarri hauek ditu:

Sartzeko modalitatea: adimen-desgaitasunaren txanda

Plazaren ezaugarriak:

Izendapena: Mendekoa

Saila: Segurtasuna

Zuzendaritza: Giza Baliabideen Zuzendaritza

Udalerria: Erandio

Ordainsari-maila: 2

Hizkuntza-eskakizuna: 1

Derrigortasun-data: datarik gabe

16.- Deitutako lanpostuko eginkizunak.

- Hartzaileei dokumentazioa helaraztea.
- Ekipamenduak, altzariak eta materiala garraiatzea.
- Biltegian jasotako materiala garraiatzen eta kokatzen laguntzea.
- Korrespondentzia eta dokumentazioa jasotzea eta sailkatzea.
- Fotokopiak egitea eta dokumentazioa koadernatzea, arduradunak hala eskatzen duenean.
- Dokumentazioa eta espedienteak artxibatzen laguntzea.
- Materiala jasotzea, egiaztatzea eta sailkatzea, konpontzeko, garbitzeko, suntsitzeko edo biltegian edo artxihoan birkokatzeko.
- Paketeak egitea, gutun-azaletan sartzeko, materiala paketatzea...



- Paletak kargatzea eta leku batetik bestera mugitzea.
- Erabiltzaileei materiala ematea.
- Aretoak eta bulegoak prestatzea.
- Instalazioak eta bulegoak irekitzea eta ixtea.
- Instalazioak zaintzea.
- Telefonoguneko zereginetan laguntzea.

17.- Gai-zerrenda espezifiko.

- 1.- Lantokiko intzidentziak. Zereginak. Aretoak eta bilerak prestatzea, anomaliak eta intzidentziak.
- 2.- Mandatuak. Mandatuen erregistroa. Jarraibide eta jakinarazpen pertsonal eraginkorrak interpretatzea.
- 3.- Ofimatikako oinarrizko makinak erabiltzea: Dokumentuen erreprografia: fotokopiagailua, plastifikagailua, eskanerra, inprimagailua, orriak josteko makina, eta grapagailua. Fotokopia-tresnak maneiatzea. Maizen azaldutako anomaliak. Enkargua. Laneko segurtasun-arauak eta ingurumena babestekoak.
- 4.- Paketeak, dokumentuak eta biltegiko materiala jaso, banatu eta entregatzea.
- 5.- Lan-arriskuen prebentzioa. Oinarrizko kontzeptuak. Eskubideak eta betebeharrak.